

❖ OLENTZERO HERNANIN

Olentzero joan zaigu... herri guztia pasata

Larunbat arratsaldean ume eta gurasoek plaza bete zuten Olentzerori harrera egiteko.

DENEI ekarriko zien ez dakigu baina Olentzero pasa behintzat pasa da Hernanin. Larunbatean jendetza zeukan zai Gudarien plazan eta herriko giltzak jaso ondoren, kale buelta egin zuen traktore gainetik gaztainak eta goxokiak boteaz. Aurretik dantzariak zijoazen eta inguru guztian ume eta gurasoak joan zitzaizkion, kaxkoari buelta eman arte. Bestalde, baserriz baserri ere ibili zen Olentzero, eta urteroko ohitura den bezala, koadrilatxoan lagundu zioten gainera. Etxe atarian gelditu, gabon kantzak kantatu eta Mendiluze eta *Anatx* bertsolariak bertsotan aritu ziren. Izan zituzten laguntzaileak ere, normalean bezala.

Egun guztian ekintzak

Larunbatean ekitaldiz josita izan zen eguna. Goizean ikastoletako umeek Olentzero atera zuten kalera eta kalez kale aritu ziren gabon kantzak kantatzen. Parrokiko abesbatzak ere egin zuen kantu saioa kale bueltan, urtero ohi duen bezala, eta gauean Gabon Gaueko erronda izan zen. ||



Olentzeroa kalean eta baserriz baserri ibili zen larunbatean.

❖ UR FESTA

Ur jolasak gaur kiroldegian

Ur jolasak izango dira gaur 4-12 urte bitarteko umeentzat, kiroldegiko igerilekuan. Igerileku haundian nahi duenak 10:00-13:00tara du aukera; txikian 10:00-12:00. ||

❖ SAHARARA LAGUNTZA

Bilera gaur, Sahararako bilketa kanpaina nola egin hitz egiteko

Saharara bidaltzeko produktuak bilduko dira aurten ere Hernanin. Aurten bildu nahi dituztenak dira: *azukrea, atuna eta konpresak*. Bilketa kanpaina nola egin erabakitzeko, bilera dago gaur Biterin 19:00etan. ||

❖ ZAHARREN EGOITZA

Txapelketa Seiko Urrean gaur

Zaharren Egoitzan gabonetan egintza asko dituzte prestatuta. Gaur karta jokuan arituko dira, Seiko Urrean, txapelketa antolatu baitute. 17:00etan. ||

❖ MIHILUZE LEHIAKETA

Lehiakideak behar dira ETB 1eko programa berrian parte hartzeko

Kike Amonarrizek ETB 1en egingo duen programa berri-rako lehiakideak eskatzen ari dira. Hirukotea juntatu beharra dago. Izena emateko deitu: 943 011784ra edo e-maila: mihiluze@eitb.com. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

Bilera gaur

Gazte Asanbladak bilera egingo du gaur, hemendik aurrera egingo dituzten ekin-tzetarako arduradunak zehazteko. Bilera 19:30etan egingo dute Biterin. ||



Benta Berri
Abenduaren 23tik
urtarrilaren 2ra
bitartean itxita.

Benta Berri
ARANO - NAFARROA
☎ (248) 51 40 18
LARUNBATETAN ETA ASTELEHEN ARRATSALEDUAN ITXITA

latetxea



PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.

► Industria eta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak

Kardaberaz 45
Tel.: 943 55 21 31



Fisioterapia
KIMERA
Antziola 16 behea. ☎ 943 556 427

**TRATAMENDU
TEKNIKAK:**
- Osteopatia
- Masajea
- Eskuzko terapia
- Elektroterapia:
ultrasonidoak, "onda corta",...

LESIO TRATAMENDUAK:
- Traumatologikoak: esgintzeak, kontrakturak,...
- Reumatologikoak: tendinitis, artrosia,...
- Neurologikoak: hemiplegiak, paralisiak...
- Kirol lesioak: fibra hausturak, sobrekargak

ISTRIPU ASEGURUAK ETA ETXEKO ATENTZIOA

☎ **TELEFONAK** 1 **Taxiak:** 943 550093 1 **Udaltzaingoa:** 943 333288 1 **DYA:** 943 464622
1 **Autobusak:** 943 556662 1 **Anbulatorioa:** 943 006666 1 **Jokalarik anonimoak:** 943 331103
1 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103 + **FARMAZIAK** 1 **Egunez:** **Bilbao-Sagastiberri** Urbieta 7 -
943 552941 1 **Gauez:** **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA

GAUR
☀
=

Lainotzen joango da eguna
aurrera dihoan bezela eta euria
egingo du. Tenperaturek ez dute
aldaketa handirik izango.

BIHAR
☀
=

Bihar eguraldi tankerakoa
izango dugu. Lainotuta egun
guztian zehar eta euria.
Tenperaturak berdintu.

(euskalmet)

❖ FUTBOLA



Hernaniko eta Errealeko jokalariek elkarrekin, atzo, finala bukatu ondoren.

Gorengoak 1-1 berdindu zuen

Zestoak lan haundiak eman zizkion Hernaniri atzo. Puntu ona lortu du Hernanik. Labaien memoriala Errealak irabazi zuen penaltietan.

HERNANIK eta Zestoak 1-1 berdindu zuten larunbatean Zubipen eta emaitzak erakutsi bezala partidua berdindua eta gogorra izan zen. Zestoak sartu zuen lehendabiziko gola, lehenengo zatiko luzapenean, penaltiz. Hernaniarrek bigarren zati bukaeran berdindu zuten, korner batean Javi Gomezek sartutako golari esker.

Berdindua eta gogorra

Partidu guztia izan zen tanke-
rakoa. Bi taldeek elkarri neurria hartu ezinda jokatu zuten, gogor eta lekuri galduta. Zestoak gola sartuta, hernaniarrei tokatu zitzaizkien ataketa eta Zestoak eginahalak egin zituen emaitzari eusteko. Zestoarrak erakutsi zuten talde betetako eta egin daukaten eta lan haundiak eman zizkien hernaniarrei.

Partidu bukaeran, Hernanik aukera gehiago izan zituen Zestoak baino eta joku hobea erakutsi zuen baina ez ziren gai izan hiru puntuak lortzeko. Enpatea eta puntua. Denak gustora.

Labaien memoriala

Jubeniletan Hernanik Labaien memorialeko finala jokatu zuen larunbatean Zubipen eta

Errealak irabazi zion, penaltietan. Erreala joan zen aurretik 0-1 ia partidua osoan eta luzapeneko hirugarren minutuan enpatatu zuen partidua Hernanik, Josu Apaolazaren gol bati esker. Penaltietan gol baten aldearekin irabazi zuten txapelak.

Urtero antolatzen du CD Hernanik Juantxo Labaien memoriale eta lau taldek hartzen dute parte. Finaleko partidua-
ren ondoren Labaien zenaren familiakoek finaleko jokalarionenari saria ematen diote eta aurtun Errealeko Julio Pardok jaso du saria. ||



Hernaniko Urbano jokalaria, atzean Zestoako defentsa duela.



Jose Angel Alberdi saritua, Zubeldia eta Arrospiderekina.

❖ SAN JOAN KONPARTSA 0286 zenbakia izan da saritua

San Joan Konpartsak saski bat zozketatu du Gabon hauetarako eta hilaren 21ean egin zen zozketa: 0286 zenbakia izan zen saritua eta saria eraman duen pertsona Jose Angel Alberdi izan da. Alberdiri gabonetako otarra eta txerri koxkor bat tokatu zaizkio. Zozketa hilaren 21eko ONCE-ko zozketarekin batera egin zen. ||

❖ ELKARTASUN DENDA Elkartasun denda zabalik da

Urtero ohi denez, Elkartasun Denda ireki dute gabonetan Hernanin. Abenduaren 17tik dago, goiz eta arratsalde, eta Elkartasun Dendaren gabonetako egutegia bertan izango da. Dendan lagundu nahi duenarentzat zerrenda jarri dute Garinen. ||

❖ EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ EHE-ek ikatza banatu zuen larunbatean

Euskal Herrian Euskaraz taldea larunbatean kalean izan zen eta salatu nahi izan zuen euskarak duen egoera. Horretarako Olentzero EHE deitu zioten ikatza banatu zuten talde batzuri: Anbulategia, epaitegia, udaletxea, A ereduko goi zikloetako ikastetxea, bankuei eta erosketak euskaraz egin ezin litezkeen ikastetxeei. ||

◆ BOLEIBOLA Neskak goian eta mutilak igo nahian

Boleiboleko taldeek deskantsua izango dute asteburuan. Mutilen taldeak lehengo asteburuan irabazita patxada pixka bat hartu du, nahiz eta sailkapenean 8garren joan. Emakumezkoen bi taldeek, berriz, denboraldi ona daramakite Gipuzkoako txapelketan eta Hernani 2garren dihoan liderrak adina punturekin eta Inmaculada 3garren dihoan, 2 puntu gutxiagorekin. ||

✠ PILAR LETE ALBERDI

ANDREA
(FRANCISCO LIZASOAINEN ALARGUNA)
Herengun hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

- Goian Bego -



Haren seme-alabak: Enrique eta Kontxi Begiristain, Jose Cruz eta Rosa Mari Garcia Ordoki, Puri eta Jose Antonio Zarraga; bilobak: Mikel eta Cristina, Iñaki, Amaia, Asier, Jon; ahizpak: Carmen (Erlujosa) eta Maria Jesus (Erlujosa); ezkon anaia: Miguel Lizasoain; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte GAUR, ASTELEHENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 26an

Helbidea: Larramendi, 9 - 5º D.

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

2006ko Egutegia

Prezioa: 3,00 €



Ilbehera ● Ilberri
Salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas,
Iruretagoiena,
Leokadisti, Plaza Berri,
Zinko-enea, Konde,
Dorronsoro, Bikain, eta
Antziola okindegian.



dobE
EUSKARA ELKARTEA

Hernanik
kronika